

PRENTSA OHARRA 2019.08.19

Scotland Goes Basque  
Edinburgh Festival Fringe + Edinburgh International Book Festival

## Erantzun bikaina izan dute azken egunotan Edinburgon aritutako euskal sortzaileek

**Guztira, arte eszenikoen eta literaturaren arloko 48 artista izan dira Eskoziako hiriburuan euren lana aurkezten.**

**Abuztuaren 25era bitartean, bertan da 2Theatre konpainia *Interbeing: Stories From a Current War* bere lanarekin.**

Neguan musika izan zen protagonista, udaberrian zinea eta udan euskal arte eszenikoak eta literatura izan dira Eskozian nagusi: **abuztuaren 7tik 18ra bitartean, Edinburgon ospatzen ari diren Edinburgh Festival Fringe arte eszenikoen jaialdia eta Edinburgh International Book Festival delakoa euskal sorkuntzaren zabalkuntzarako plataforma bilakatu dira #ScotlandGoesBasque programaren eskutik.** Etxepare Euskal Institutuak urte osoan zehar garatzen ari den ekimen horren mugarri garrantzitsuenetako bat izan da joan den egunetakoa. Oso egun biziak izan dira, jarduera asko izan dira oso denbora gutxian, eta Eskoziara bidaiaria egin duten 48 sortzaileentzat abagunea izan da euren lana han bildutako nazioarteko publiko anitzari erakutsi, mundu mailan euren alorretan zer egiten ari den ezagutu eta profesional ugariarekin hartu-emanak areagotzeko, euren lanari oihartzun zabalagoa eman aldera.

**#ScotlandGoesBasque** programaren bidez, euskal sorkuntza eta kultura garaikidea mundu mailan kokatzeko eta erakusteko leihoak sortu ditu Etxepare Euskal Institutuak nazioarteko prestigidun jaialdietan, eta harreman horiek etorkizunean mantentzeko lan egingo du Institutuak.

Etxepare Euskal Institutuaren zuzendari Irene Larrazaren hitzetan, "lehen aldia da diziplina ezberdinetan, toki berean eta batera, horrelako programa bat sustatzen dugula. Aste oso oparoa izan da, eta oso pozik gaude emaitzarekin". Bestalde, euskal sortzaileek Fringe eta Edinburgh

International Book Festival jaialdian aurkeztutakoaren inguruan, zera gaineratu du: “Edinburgoko esperientziak erakutsi digu euskal sortzaileak mundu osoko puntako sortzaileekin buruz-buru aritu daitezkeela eta hemen egiten den kultura munduko beste edozein txokotan egin daitekeenaren adinakoa dela, eta horretaz harro egon gaitetzke”.

**Edinburgora heldu ziren lehen euskal ordezkariak izan ziren [Fringe](#) arte eszenikoen jaialdian jardun zutenak:** abuztuaren 7tik 10era bitartean, Royal Mile Mercat Stage eszenatokian, kaleko ikuskizunen jaialdiaren bihotzean jardun ziren **Tio Teronen Semeak** *FreshCool* aurkezteko. 8tik 11ra, berriz, **Krego-Martin Danza** konpainiak, **Akira Yoshidak** eta **Proyecto Colectivo HQPC**-k *Basque Showcase*, euren lanen lagina aurkeztu zuten Dance Base, Eskoziako Dantza Zentro Nazionalean; eta 9ko *Basque Showcase* emanaldiaren ostean **Atlantik 1050** ikuskizunaren erabateko estreinaldia izan zen eszenatoki berean; euskal eta eskoziar dantzariak egina, euskal nahiz eskoziar dantza tradizionalak uztartzen ditu ikuskizun horrek. Bestalde, hilaren 25era arte ikusgai dago **2Theatre** bilbotar taldearen *Interbeing: Stories From a Current War*.

**Literaturari dagokionez, hilaren 10etik atzo arte luzatu da euskal idazleen presentzia [Edinburgh International Book Festival](#) jaialdian.** Jaialdiko hainbat ziklotan jardun dute euskal idazleek, eta lagun izan dituzten musikariak, euskal literatura eta, bidez batez, euskal kultura, ezagutzera emateko aukera izan dute. Halaber, bertaratutako publiko zein nazioarteko idazleekin euren lanen eta literaturaren inguruan hausnartzeko parada izan dute. Euskal idazleen hainbat ekitaldirako sarrerak aurrez agortu ziren, emanaldi horiek publikoarengan sortutako jakin-minaren erakusgarri. **Iban Zalduak** James Robertson eskoziarrarekin batera *Txekhov vs. Shakespeare* proiektuaren baitan egindako gutun-bilduma jasotzen duen liburua aurkeztu zuen; poesia eta testu literarioen errezitaldia Arabar Errioxako ardoa dastatzearekin uztartu zuten **Harkaitz Canok** eta **Danele Sarrigurtek**, Tio Teronen Semeak taldeko musikariak lankide zituztela; *Scotland Goes Bertsolaritza!* ikuskizuna aparta gertatu zen bertsolaritza zer den azaltzeko: **Uxue Alberdik** bertsotarako lankide bihurtu zituen ikus-entzuleak, Danele Sarrigarteren laguntzaz, eta buruz burukorako betarik ere izan zen Uxueren beraren eta Antton Fernandezaren artean; eta Uxuek berak Ciara MacLavery eta Rachel Newton eskoziarrarekin ondutako *Throwing Voices* hunkigarria aurkeztu zuen. Bestalde, nazioarteko idazleekin izandako solasaldietan euren lanaz mintzatzeko aukera izan dute idazleek: Harkaitz Cano Jumoke Verissimo poeta nigeriarrarekin aritu zen, **Miren Agur Meabe** Zinzi Clemmons estatubatuarrekin, **Bernardo Atxaga** Margaret Jull Costa itzultzailearekin. Eta, amaitzeko, atzo **Eider Rodriguezek**, bere liburuetakoa pasarte batzuk irakurri eta itzulpengintzaren inguruko maisu eskola eman zuen Margaret Jull Costarekin batera.

**Azken asteotan Edinburgon ikusitako hainbat ekimenek jarraipena izango dute Euskal Herrian ere:** han estreinatutako *Atlantik 1050* ikuskizuna irailean Atlantikaldian ikusteko aukera izango dugu eta *Txekhov vs. Shakespeare* ekimenaren uzta biltzen duen liburua Literaktumen emango da ezagutzera.

Edinburgoko jaialdien osten, **#ScotlandGoesBasque programaren baitako hurrengo jarduerak eskoziar unibertsitatea izango dute jomuga:** batetik, Edinburgoko Unibertsitatean “Mugarik gabeko ala mugatutako esparrua? Hizkuntza gutxituetako hedabideak eremu digitalean” mintegia izango da, urriaren 16an eta 17an; eta, bestetik, Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren *Europa Transit* egitasmoko dokumentalak izango dira ikusgai Edinburgoko eta Glasgowko Unibertsitateetan, urriaren 17tik 19ra.



#### **Info+**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)